



Luis Martínez Uribe

Juan March Fundazioaren Liburutegiaren zuzendaria

Luis Martínez Uribe. Juan March Fundazioko Liburutegia/Ikerketari Laguntzeko Zentroa zuzentzen du (baita DataLab datuen zientzia-unitatea ere, datuak jagoteko eta aztertzeko proiektuak bideratzen dituena). Aurrez, Oxfordeko Unibertsitateko The London School of Economics ikastegian, Juan March institutuan eta The Australian National Data Service erakundearen jardun zuten. Matematikako lizentziako, Informazio Sistemako masterreko eta Soziologiako doktoregoko ikasketak egin ditu.



Beatriz Martín García

Juan March Fundazioaren Liburutegiko liburuzaina, arte-funtsaren arduraduna

Beatriz Martín García erreferentziatzeko liburuzaina da, Artearen Arloan eta Komisariotzako Ikasketetan; aurrez liburutegien koordinatzaile gisa aritu da, eta bereziki landu du liburutegien gizarte-funtzioa. Hain zuzen ere, gai hori lantzen jarraitzen du Complutense Unibertsitateko "Liburutegia, gizarte-hezkuntza eraldatzeko eragile" masterreko irakasle gisa. Bibliotekonomia eta Dokumentazioko lizentziaduna da, eta Liburutegiak eta Informazio Digitaleko Zerbitzuak masterra ikasi du.

Liburutegi bat baino askoz gehiago: museoetako liburutegiak

Hitzaldi honek galdera hau du ardatz: nola lagun diezaioke liburutegi batek museo bati? Galdera horri erantzun integrala emateko, ikuspegi orekatu bat proposatzen da; alegia, liburutegi eta artxiboen zeregin tradizionalak eta metodologia analitikoaren eta tresna teknologikoen erabilera uztartzea eta erabiltzaileen komunitateei dagozkien alderdi guztiak zaintzea.

Juan March Fundazioaren Liburutegian egindako lanak eta proiektuak adibide harturik, funtsak eskuratzeko, antolatzeke eta kontserbatzeko zereginen eta materialetara aurrez aurre nahiz online iristeko bideak ematearen garrantzia nabarmenduko da.

Era berean, bilduma digitalen bidez datuak zaintzera, ustiatzera eta jagotera, babes digitalera, erabakiak hartzeko analitikara edo liburuzainen lana babesteko inteligentzia artifizialeko teknologiak erabiltzera bideratutako ikuspegi teknologiko bat aurkeztuko da.

Era berean, erabiltzaile-komunitateak sortzeko eta zaintzeko ekintzen adibideen berri emango da, liburutegia era horretako komunitateen topagune bihurtzeko ideia oinarri harturik.